



Maria Josep Miró i Coromina

*Arkimedesen printzipioa*

ANE: Gurasoak kexatu dira. Badakizu? Ni begiralea izan nintzen gaztetan. Hemeretzi edo hogei urte nuen. Agian hogeita bat. Talde progre haietako baten begiralea. Ibaira joan eta umeekin biluzik bainatzen ginen... Egun batean beste begirale bik haien artean sartu zuten neskato bat ohean, ezin zuelako lorik egin negar batean zegoelako... Beste egun batean, jolas bat egin genuen, ea nork egiten zuen katerik luzeena jantzita zeukan arroparekin. Gurtia erantsi genuen, nik neuk ere bularretakoa eta guzti erantsi nuen umeen aurrean! (Besoak bularretan gurutzatuta keinu eginez) Horrela egon nintzen une batez. Guztiek barre egiten zuten eta beste begiraleek txistuka egin eta ez estaltzeko esaten zidaten. Izan ere, elkarrekin bainatzen ginenean biluzik ikusi ninduten, baina egoera hartan dibertigarria zen. Gaur egun hori guztia ezinezkoa litzateke... Orain badaude egitea ere bururatuko ez litzaizkigukeen gauza lañoagoak. Inori ez litzaioke bururatuko eta egingo bagenu, nahaste-borraste ederrean sartuko gineteke. Azken finean, arazoak sahiesteko ez gara esta ume batekin bakarrik ere egongo. Baina hala ere, gauza batzuk gertatzen dira. Gertatzen jarraitzen dute. Udalekuko kontu honen modukoak. Batzuetan ematen du inoiz gertatu diren baino askoz ere gehiago gertatzen direla. Zergaitik? Zer gertatzen ari da edo zer egiten ari gara horrelakorik gertatzeko? (Pausa) Eta orain... ezin diot zergaitik eman dion musu bat pentsatzeari utz? Normala da gurasoan kezkatuta egotea? Edo ez? Gustatuko litzaidake ustea lñaki, gu izan ginen modukoa dela, begirale egon ginen gure koadrilakoak bezela eta ez... Udalekuko kaka horren guztiaren modukoa. Ez dakit zergaitik ez dudan konfidantzarik. Beti uste izan dut entrenatzaile ona dela, esaneko persona. Bere egiteko era gustuko dudala. Naturaltasun hori... Gu ere sasoi hartako begiraleok, horrelakoak ginen, baina orain... Kontrakoa esatea gustatuko litzaidake, baina inork baino hobeto ulertzen dut gurasoen beldurra. Ez dakit nor den, esta gurasoek arrazoia duten eta zergaitik jarraitzen dudan gauera itotzen diren umeekin amesten. Ez dakit zer topatu nahi nuen bere armairuan, diru zorroan edo mugikorrean. Ez dakit eskubiderik dudan bere gauzetan nahasteko. Ostirala da eta... Agian hobe litzateke arratsaldeko entrenamenduak egingo ez balitu eta asteburua pasatzen usten badugu. Ez dakit. Hori ere ez dakit. Ezta zergaitik azaltzen dizudan hau guztia.